

HUHEZIK bi ikastaro aurkeztu ditu, nazioartekoak, eta ingelesez emango dira

2007/06/12

HUHEZIK bi ikastaro antolatu ditu nazioartekoak 2007-2008 ikasturterako. Biak **ingelesez** emango dira erabat, ikasturteko **lehen lauhilekoan**, eta bertan parte hartuko dute 10 bat ikaslek, erbestetik etorriak.

Ikastaro hauek **berritasun handia** dakarte, orain artean Euskal Herriko unibertsitate gehienek erakartzen baitzituzten atzerriko ikasleak gaztelaniazko eta frantsesezko ikastaroak antolatuta. Bi ikastaro hauek, berriz, erabat ingelesez emango dituzte HUHEZIKo irakasleek.

Ikastarook antolatu dira Ipar Europako herrialdeek (Norvegiak, Danimarkak, Finlandiak eta Holandak) ezarritako ereduari jarraituz, hedapen txikiko hizkuntzak izanik, aukeratu baitute ingelesa nazioarteko ikasleak erakartzeko.

- Media and Minority Languages da ikastaro baten izena, **Hedabideak eta Hizkuntza Gutxituak**, eta prestaturik dago komunikazioko ikasleentzat. Bertan aztertuko dira euskarazko hedabideak. Halaber, ikasleek praktikaldi bat egingo dute tokiko hedabide batean.
- Education and Minority Languages da bigarrenaren izena, **Hezkuntza eta Hizkuntza Gutxituak**, eta bertan aztertuko da Hezkuntza testuinguru eleaniztun batean (euskara, gaztelania eta ingelesa). Hemen ere, ikasleek praktikaldi bat egingo dute haur eskoletan.

Ikastaro bakoitzak **best irakasgai** izango ditu, horietatik bi komunak: Euskara eta Bertsolaritza XXI. mendean. Kasu bietan ikastaroa amaitutakoan ikasleak jasoko ditu **30 kreditu ECTS erakoak**, Europak berretsitakoak.

Hamar bat ikasle

Guztira hamar bat ikasle etorriko dira Eskoriatzara: **2 Estoniatik, 3 Belgikatik, 2 Holandatik** eta beste **2 Turkiatik**. Unibertsitateko Nazioarteko Bulegoak lagunduko die ikasle hauei etxea bilatzen.

